



ALEA

arabako aldizkaria

A large poster on a bus stop shelter. At the top left is the HM Government crest and logo. To the right, a red banner reads 'BREXIT 31 OCTOBER' with a small Union Jack flag. The main text 'Get ready for Brexit' is in large, bold letters, with 'ready' in red and 'Get', 'for', and 'Brexit' in blue. At the bottom, a red double arrow points right towards the text 'Prepare for Brexit at gov.uk/brexit'.

BUS STOP		
Cross Street		
Towards Queens Junction or Kensington Green		
38	56	73
341	476	N38
N73		

BREXITA

**DESKONEXIOA,
ARABARREN BEGIETATIK**



LAGUNTZAK

IRAILAREN
30ERA
ARTE

**> GASTEIZKO ENPRESENTZAT,
45 URTETIK GORAKO
PERTSONENTZAT ENPLEGU
EGONKORRA ETA KALITATEKOA
SUSTATZEKO**

tel. 945 161 531

+info: [vitoria-gasteiz.org /negoziolaguntzak](http://vitoria-gasteiz.org/negoziolaguntzak)



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ALEA 208

2019-09-27 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:
MAIDER LACALLE.

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Itziar Rekalde eta Igor Muñoz.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Brexitaren atarian, gizartea zatituta.
- 8 **Protagonista.** Elena Laka eta Kike Amonarriz, Euskaltzaileen Topagunea.
- 12 **Iritzia.** Itziar Rekalde, 'Harira'.
- 14 **Gutuna.** 'Pazientzia baino errespetuaz ari gara, Uriarte anderea'.
- 15 **Gutuna.** 'Eskola-jantokietan ere kalitatezko zerbitzuaren alde!'
- 16 **Sarean.** #KlimarenAstea.
- 17 **Iruditan.** Motor hotsak Mendialdean.
- 18 **Gizartea.** Adingabe migratzaileek integrazteko laguntza falta dute.
- 20 **Kultura.** Kulunkak emango dio hasiera Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiari.
- 22 **Esanak eta laburrak.**
- 24 **Kultura.** Marxan da 'Euskaraz kontsumitzeak saria dakar' kanpaina.
- 25 **Kultura.** Euskararen Agenda, Telegramen.
- 26 **Musika.** Igor Muñoz, 'Nostalgia ariketa'.
- 28 **Jolasa eta irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Zatitutako gizarte baten erdi-erdian

Nekea, haserre eta kezka. Brexitaren atarian, Erresuma Batuan bizi diren arabarren artean gehien errepikatzen diren hitzak dira; irteera Europarekin adostu zein ez, langabezia kopuruetan, pentsioetan edota elikagaien prezioan nola eragingo duen arduraz begiratzen diote.

Panic on the streets of London

Panic on the streets of Birmingham

I wonder to myself

Could life ever be sane again?

Testua eta argazkiak: **Maider Lacalle.**

Manchesterreko The Smiths taldearen abestia entzun daiteke Londreseko udako gau sargori eta lasaian. Hiriko erdialdean dagoen Charing Cross Road kaleko sotoko taberna batetik dator, eta nabari da festa antzeko bat prestatu dutela bertan dagoen lagun kopuru eskasarentzat. Kalearen mailan elkarrekin hitz egiten ez duten pertsona bi daude: bata zigarroa erretzen eta bestea mugikorrean hizketan.

Eszenatokia bera da, Londres; eta testuinguru politikoak baditu konparazio bat edo bi. Ez da 1986, baina langabezia tasa igotzen ari da, nahiz eta 1980ko hamarkadan gaurko bikoitza zen, eta Gobernu buruan jarrera euroeszeptikoa duen parlamentukide kontserbadore zorrotza dugu. Orduan, Margaret Thatcherrekin, gogogabetasun sozial batek biltzen zuen gizartea. Egun, apatia giro hau berriz ere barneratu da gizartean.

Laurogeigarren hamarkadan ez bezala, dena den, Britainia Handiko Gobernua herrialdeko biztanleak bata bestearen aurka jartzen hasi zenetik, zaila da protesta mugimendu kulturalik antzematea.

2016. urteko ekainaren 23an ospatu zen Europako bigarren ekonomia indartsuena den honetan Europako Batasunetik ateratzeko erreferenduma. Hilabete batzuk beranduago AEBetan gertatu zen



moduan, inork ez zuen espero azkenean ofizialtzat eman zen emaitza. *Leave* edo atera %52, eta *Remain* edo barnean geratu %48.

Inkestek egindako jarraipenaren arabera, alde bat eta bestearen inguruko iragarpenak gertu egon ziren, eta kanpainia hasieran ehuneko 50 ematen zioten alderdi bakoitzari. Erreferenduma ospatu aurreko bi hilabeteetan, dena den, *Remain* zen aurreikuspenen artean faborittoa, Europako Batasuneko merkatu komuneko kide izaten jarraitzea alegia.

Ezusteko emaitzen atzean egon zena zehazki jakitea zaila da, azken finean Gobernuak gaien inguruan ari baikara. Dakiguna, dena den, Trump garaile ikusi zuten hauteskondeek eta Brexitaren aldeko erreferendumak ustekabeko emaitzak baino gehiago izan zituztela komunean.

Beranduago ikasi dugunez, Europa, AEBak eta ondorioz mundu osoa eragin duten bi ekitaldi hauek Cambridge Analyticaren – ordudanik operazioak bertan behera utzi dituen Erresuma Batuko konpainia– laguntza izan zuten.

Dirudienez, Facebooken bitartez eta bertan guk argitaratutako informazio pertsonala erabiliz, espreski bideratutako mezu sofistikatuak bidali zizkioten populazioaren zati bati hauen botoa Brexitaren alde eragiteko intentzio planifikatuarekin.

Akordioarekin edo gabe, Boris Johnson Lehen Ministroak iragarri du Erresuma Batua urriaren 31n aterako dela Europako Batasunetik.



Brexitaren alde ala kontra, ia astebururo izaten dira manifestazioak Londres erdigunean.



"BREXITAREKIN BARREGARRI GERATZEN ARI DIRELA USTE DUT"

MIKEL REY

Hori nahikoa asmo gaiztokoa ez balitz, hiru urte baino gehiago daramatza Erresuma Batuak erabaki ezin dezakeen mentalitatearen linboan. Ezin erabaki noiz alendu Europako Batasuneko merkatu komunitik, ezin erabaki zein baldintzatan egin hau –gogora dezagun Theresa May aurreko Lehen Ministroa izandakoaren Brexit akordioak hiru aldiz egin zuela porrot Parlamentuan eta oraindik ere hau mahai gainean dugun akordio bakarra dela– eta ezin erabaki ere nor izango den prozesu honen burua –hiru Lehen

Ministro izan ditu Erresuma Batuak erreferendumaren ideia azalera atera zenetik–.

Oraindik, gainera, herrialdea ez da hasi Europarekiko etorkizuneko erlazioa nolakoa izango den eztabaidatzen; bizitzten ari garen eguneko Brexit prozesua ibilbide honen hasiera besterik ez da; Europarekiko dibortzioa edo banaketa, alegia.

Honetaz gain, eta beharbada ekitaldi mediatiko honen erdi-erdian, Irlanda berriz ere erdibitu lezakeen muga gogor baten mehatxuarekin bizi dira Erresuma Batua eta baita Irlanda ere.

Hitz gutxitan: Brexit bidai honi asteak eta hilabeteak geratzen zaizkio oraindik, urteak beharbada.

Kezka eta haserre

Bitartean, Erresuma Batuak tinko eutsi dituen demokrazia tradizionalaren euskarriek dardar egiten dute populazio ahuldu, kezkatu eta nazkatu batek gero eta muturragoko jarrerak hartzen dituen bitartean. Gizartea azken hiru urteotan linboan egoteak herritarrek Gobernuarekiko zuten konfidantza birrindu du, azken hamarkadan lehen aldiz Erresuma Batuko ekonomiaren sendotasuna zalantzan jartzearekin batera.

Kaleek ez dute ostiral eta larunbat gauetan zuten bizitasuna, ekainean langabezi tasak 1,3 milioi langabetu erregistratu zituen – jakin behar kontratu berezien estatistikak zenbaki honetan neurtzen diren ala ez–, 2010 urtetik %165 egin du gora Britainia Handiko eskaleen kopuruak, eta egun 201 lagunetik bat etxegabea da. Aurtengo udan ere lanpetuak izan dira herrialdeko elikagai-bankuak, eta inoiz ez bezalako janari kopuruak eman dizkiete beharrean dauden gurasoen seme-alabei.

Honen guztiaren erdian adostasuna lortu ezin dezakeen eta Europako Batasunetik irteteko data berriz ere atzeratu nahi ez duen Gobernu dugu –nahiz eta Parlamentuak akordio eza blokeatu egin duen eta hau ordudunik lege bihurtu den–, hauteskundeekin mehatxatzen duten alderdi politikoak, eta gero eta nahasiago, kezkatuago eta haserreago dagoen biztanleria. Gudetan, eta honako

hau Gobernuak kide elitisten arteko guda da bereziki, herritarra izaten da beti galtzaile.

Arabarrak Erresuma Batuan

Iazko zenbakien arabera, 680 arabar inguru bizi dira Erresuma Batuan. Frantzia bizi diren arabarren erdia, baina Alemaniako arabarrek osatzen dutena baino zertxobait gehiago. Haien artean Mikel Rey gasteiztarra dugu, Londresen bizi den 43 urteko gaztea. Azken zazpi urteak eman ditu Erresuma Batuko hiriburuan eta egun finantza arloan lan bila dabil, ikasketak eremu honetan egin izan zituelako.

"Gizartean zatiketa argia ikus daiteke. Nik kafetegi batean egiten dut lan, Trafalgar Square Londreseko erdialdean, eta ia astebururo egiten dira manifestazioak Brexitaren alde eta kontra". Hau herrialdearentzat "osasuntsua" ez dela uste du, eta Erresuma Batura lehen aldiz etorri zenean topatu zuen herrialde "serio eta formalagoa" nostalgia puntu batekin gogoratzen du.

40 urteko Marina Llamas Barco gasteiztarrek ere antzeko kezka ditu. Martxotik darama janariak pilatzen badaezpada, eta Europarekiko akordio bat lortu edo ez, prozesuaren amaiera irrikaz itxaroten du. "Brexit ibilbide honek Erresuma Batuko herritar guztien bizitzetan izan du eragina. Ez dakigu nolakoa izango den eragin hau etorkizunean, baina langabezia, pentsioak eta janariaren prezioen igoeraren inguruan kezka dago [...] Jendea itxoiteaz nekatuta dago".

Laura Ortiz-Ruiz de Gordoak -47 urte- ondo gogoratzen du erreferenduma gertatu eta hurrengo egunean bere lankideek zizutzen aurpegiak. Osasun zerbitzu publikorako lan egiten du, eta herrialde askotako lagunekin konpartitzen du lantokia. "Lanera iritsi nintzenean bertan geundenok elkarri begiratu genion... 'Zer gertatu da?' galdetu genuen; inork ez zuen emaitza espero [...] Europako lankide asko minduta sentitu ziren. Ez ziren gehiago Erresuma Batuan ongi-etorriak sentituko".

Hogei urte zituen Laurak Gasteiz utzi eta Erresuma Batura lehendabizi heldu zenean, *au pair* moduan urtebeterako ingelesa ikastera. Brightonen bizi da egun, eta argi du Brexitaren aldeko emaitza ateratzea gizartean gezurrezko mezuak zabaltzearen ondorioa izan dela. "Albisteek herrialdeko jendeari kanpotar askok Britainia Handiko osasun zerbitzuaren erabilera egiten dutela sinestarazten diete, besteak beste, baina hori ez da egia. Beste arazo handiagoak ditugu osasun publikoan, eta jendeak jakingo balu nola pribatizatzen ari diren hau gu konturatu gabe... hori bai dela arazoa! Eta hau ez da berrietan agertzen".


Betidanik Europarekiko jarrera susmagarria izan du herrialde honek, eta honen zati handienak hartu duen erabakiaren ondorioak zer ekartzen digun ikusi beharko da. Panikoa susmatzen da bai Londreseko kaleetan, The Smiths taldeak orain dela hogeitamar urte abesten zuen moduan, eta baita Birmingham, Sheffield, Leeds eta herrialdeko beste izkina guztietan ere.

Gertatzen dena gertatzen dela, hogeitabatgarren mende honetan Britainia Handian haien musika-armak hartu ez dituzten artisten damuaren berri izango ote dugun jakiteke geratuko da prozesu honen amaiera iristen denean, hau noizbait heltzen bada. ■■■



"JENDEAK EZAGUTZEN EZ DITUEN BENETAKO ARAZOAK DITUGU OSASUN PUBLIKOAN"

LAURA ORTIZ-RUIZ DE GORDOA



"LANGABEZIA EDOTA PENTSIOAREN INGURUKO KEZKA NABARIA DA"

MARINA LLAMAS

"Erdigunera ekarri dugu euskaltzaleen komunitatea"

ELENA LAKA ETA KIKE AMONARRIZ EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Euskararen erabilera sustatzea helburu duen Euskaltzaleen Topaguneak etapa berria hasiko du gaur, erronka berriekin eta Kike Amonarriz buru; besteak beste, GEU elkarte eta Arabako ALEA barne hartzen dituen federazioak egindako lanari jarraipena eman eta 2020ko Euskaraldia prestatzeko lanei ekingo die. Testua: **Monika Belastegi**. Argazkiak: **Dani Sanchez**.

Bergarako Errekalde jauregian batu ditugu Elena Laka eta Kike Amonarriz. Elena Laka 2014ko apirila ezkerro Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari izan da eta kargua utzi egingo du. Lehendakaritzarako hautagai moduan aurkeztuko da Kike

Amonarriz, gaur, ostirala, Andoainen egingo den batzar nagusian; hark hartuko du lekukoa.

Elkarriketa abiatzeko, esan behar dugu Bergaran gaudela, eta ez da kasualitatea Euskaltzaleen Topaguneaz hitz egiteko Bergaran elkartu izana.

Elena Laka: Bai, Bergarak badu esanahi berezi bat Euskaltzaleen Topagunearentzat. 1996an tokian tokiko euskara elkarteek pentsatu genuenean tokiko egitura hori gainditu eta horiek batuko zituen egitura nazional bat sortzea, sorrera bilera hura Bergaran egin zen. Horregatik dauka esanahi berezia.

Kike Amonarriz: Bai, eta, gainera, gogora datozkigu pertsona batzuk, ezta, Elena? Haiei eta haiek bezalako pertsona askori esker gaude hemen. Mugimendu oso polita sortu zen, eta gaur egungo Topagunearen errealitatea ulertzeko uste dut garrantzitsua dela jabetzea Topagunea ez zela sortu aurrena, eta gero elkarteak etorri zirela. Ez. Kontrako bidea izan zen, oso behetik gorakoa. Elkarteak zeuden hainbat lekutan, eta elkartu beharra eta hura koordinatu beharra ikusi genuen. Nolabait, federazio bat antolatu beharra. Horrek

azaltzen du zergatik euskara elkarteek daukaten horrelako nortasun propio indartsua. Polita izan da ikustea nola konbinatu talde bakoitzaren indarra, autonomia eta nortasun hori, mugimendu zabal batean.

Biak ere beteranoak Topagunean, eta zure kasuan, Elena, 2014a ezkerro lehendakaria. Oraitxe utzi duzu; zergatik?

E. L.: Bost urte badira zerbait; kar, kar, kar.

Lagatzeko momentu bat badela uste dut. Bost urtean ibili naiz, ahal izan dudanez neurrian, buru-belarri sartuta eta inplikaturik, eta orain, badator beste lehendakari bat. Gauza berriak egingo ditu, aro berri bat dator, eta jauzi bat aurrera egingo duena. Nik uste dut nire lana egin dudala, eta gizarte mugimenduetan aldaketa hauek gertatzea oso onuragarria dela. Pertsonen osatutako erakunde bat da, eta nire ustez ezin da egonkortu pertsona bat, ez delako ona. Nire lana egin dut, oso-oso pozik egin dut, eta Euskaltzaleen Topaguneaz berba onak besterik ez dut esateko, eta orain, Kikeri pasatzen diot lekukoa.

K. A.: Elenak bost urte esan ditu, baina ze bost urte! Emankorrek, intentsoak...

E. L.: Ez lasaitu, hurrengo bost urteak ez direlako lasaiak izango; kar, kar, kar.

Balorazio positiboa egiten duzu, Elena? Pozik uzten duzu?

E. L.: Bai, jakina geratu direla gauzak. Balorazioa, modu pertsonalean eta aktibista moduan, eta



mugimendu moduan intentsoa eta positiboa izan da. Maila pertsonalean geratzen naiz izandako harreman guztiekin, bai gizarte mugimenduekin, eragileekin eta erakundeekin. Fase ezberdinak igaro ditugu, baina guztiak emankorrak eta uste dut oso aberatsak izan direla. Euskaltzaleen Topaguneak jauzia eman duela uste dut. 2014an, Mikel Irizar orduko lehendakariak zioen etorkizuna genuela irabazteko, eta uste dut pusketatxo bat hortxe irabazi dugula. Jauzi handia egin dugula uste dut. Euskaltzaleen komunitatea erdigunera ekarri dugu eta hartzen dihardugu lekua, eta ez da inork ematen digulako, baizik eta guk egin dugulako jauzi hori. Hori egiten ari gara, baina oraindik asko dago hobetzeko.

ESKU ONETAN UZTEN DUZU LEKUKOA, ETA ZUK NOLA HARTZEN DUZU, KIKE?

K. A.: Ba, ilusio handiz! Elenak esan duen bezala, bost urte hauetan berak lideratu duen mugimendu guztia ikaragarria izan da. Jauzi ikaragarria eman dela uste dut, ilusio handiz bizi izan dugun jauzi bat, gainera. Aurreko lehendakari guztiek epe bat bete dutela ikusi dut, eta beti gorantzako mugimenduan. Elenarekin diskurtso aldaketa bat ere etorri da, euskararen inguruan hitz egiteko modu berri bat, eta Elenak euskalgintzaren bilakaera hori guztiori irudikatu du. Orain, nik ilusioarekin hartuko dut, baina baita erantzukizunarekin. Lan horri beste urrats bat, beste salto bat eman behar zaio, eta mugimendua

zabaltzearen bidetik eta indartzearen bidetik ikusten dut nik. Euskaraldiak euskalgintzaren eragin ahalmena biderkatu du, eta elkarlanaren bidea sakondu egin behar da. Erronka, beraz, orain arte lortutakoa zaintzea izango da, eta horri etekina atera behar diogu.

E. L.: Zu izango zara lehendakaria eta lideratuko duzu taldea, baina sekulako lantaldea dago Euskaltzaleen topagunean, hori esan beharra dago. Jendetza ikaragarria dago momentu honetan, Euskal Herri osoan, gainera, sekulako lana egiten. Hau gizarte mugimendu bat da, eta jende asko mugitzen da norabide berean.

K. A.: Eta, gainera, baiezkoa ematearen arrazoietako bat, justu, hori izan da. Aurretik ere elkarren berri baguenen, Topalabean ere elkarrekin egon gara, herriz herri ere egon izan gara... eta ekosistema atsegin bat, ilusionatua eta ireki bat ikusten duzunean, gustua ematen du horrelako giro batean lan egiteak.

Euskaraldia aipatu duzu, Kike, eta izan duen garrantzia. Uste duzue Euskaraldiak euskalgintzari eraldaketa ekarri diola? Zer ekarri dio?

E. L.: Euskaraldia prozesu luze baten azkeneko begia izan da, nahiz eta jarraipena izango duen gerora. Ez da horrelako batean sortu. Euskaltzaleen Topagunean lan handia egin da aurretik. Lehenengo, mugimenduaren barruan; eta gero, euskalgintzako gainerako eragileekin, erakundeekin... Egin den lana, sortu den giroa...



"ULERTZEKO GAI DENA AKTIBATZEN BADUGU, SALTO IKARAGARRI HANDIA IZAN DAITEKE"

horren ondorio izan da Euskaraldia. Duela hamar urte Euskaraldia ezin izango zen egin, ia seguru, beste egoera batean geundelako. Eta egoera aldaketa horri denok egin diogula mesede uste dut: bai erakundeek, bai gizarte eragileek, eta baita euskaltzaleen mugimenduak ere. Bakoitzak bere aldetik jarri du, eta 2017a uste dut izan zela giro aldaketarako eten bat, konfiantzan oinarritutakoa. Gaur egungo egoera zubiena da, sareak egitearena. Eta elkarlanaren bitartez Euskal Herria euskalduntzea.

Hortaz, eragileen eta erakundeen arteko elkarlana benetakoa izan da?

E. L.: Elkarlana edo zubigintza esaten dugunean eta egiten ditugunean argazkiak horren inguruan, ez gara bakarrik titular batez ari, ez gara bakarrik argazki batez ari. Horrek, barruan, benetako gauzatzea du, eskuz esku elkarlanean gaudelako konfiantza osoz. Erabat garrantzitsua da konfiantza hori, norberak bere esparrua gordez eta elkarlanean arituz. Horrek ekarri ahal izan duena ikaragarria izan da, eta ondorioa Euskaraldia izan da. Zer gertatu da? Elkarlan horren ondorioz sortu dugula ariketa sozial bat eta 200.000 lagunek eman dutela izena Euskal Herri osoan.

Zer-nolako aktibazioa, ezta?

K. A.: Nik uste dut, gainera, inork ez genuela espero horrenbestekoa izango zenik.

E. L.: Zerbait handia espero genuen, baina ikaragarria izan da eta ez da horretan bukatu. Orain, 2020ko Euskaraldia etorriko delako, entitate gehiagorekin, herri batzorde gehiagorekin, eta helburua, gutxienez, jende kopuru berak parte har dezala.

K. A.: Nire ustez egon da hausnarketa bat erakunde askotan eta euskalgintzako eragile askorengan ere, eta gehienak ondorio antzekoetara iritsi ziren. Horrek ahalbidetu du Euskaraldia bezalako egitasmo bat. Eta gero, hor astroen konfluentzia ere gertatu da.

Elenak aipatzen zuen giro hori?

K. A.: Bai. Eta egin kontu, azken aurreko Korrikan erakundeek eta euskalgintzako eragileen artean egin zen kilometro bateratua. Hura izan zen, seguru aski, elkarlanaren lehen argazki soziala. Nik ez nuen espero Euskaraldian hainbeste jenderik parte hartuko zuenik. Ezta Euskal Herri osoko erakundeek elkarlana horren sakona izango zenik. Euskaraldiak Euskal Herri osoa bisualizatu du. Hurrengo erronka izango da, beraz, iritsi garen puntutik harantz egitea. Eta harantz esan nahi du sakonago, indartsuago eta zabalago.

Zeintzuk izango dira 2020ko Euskaraldirako erronka zehatzak, orduan?

K. A.: Entitateetara goaz. Entitate esaten dugunean, edozein talde egituratu da. Izan liteke enpresa handi bat, txaranga bat, ikastetxe bat edo yoga talde bat. Labur esanda. Horrek inplikatzeko du entitate horiek barne-hausnarketa bat garatu beharko dutela esateko "guk ere aurrerapauso bat eman nahi dugu", eta, ahobizi eta belarriprest rolak pertsonak aukeratu genituen bezala, entitate horretako gune batek edo entitate osoak erabaki beharko du euskaraz egin daitekeen gunerik duen ala ez, gune hori osatzen duten guztiek euskaraz ulertzen dutelako. Edo beste kanpoko harremanetan ere euskaraz egin dezaketen pertsonak daudelako. Hori, batzuentzat, urrats erraza izango da, baina errealitateak oso-oso anitzak dira, eta entitate txikiak eta handiak daude. Guk ahal dugun guztietara heltzeko borondatea dugu. Eta hori lortzen badugu aurrekoan lortu genuenaren antzeko tamainan, nik uste dut bide oso indartsua zabalitzen dela euskalgintzarentzat.

E. L.: Bai, horrek espazio berriak irabaztea ekarriko du. Eta gero, bigarren gauza bat, belarriprest figura arigune horietan zabalitzen bada, horrek ekarriko

du euskaraz egin nahi dugunok gero eta espazio gehiago izatea euskaraz aritzeko. Belarriprest figura horrek, ulertzeko gaitasun horrek, bermatzen dit niri, euskal hiztun moduan, edozein tokitan euskaraz jarduteko gai izatea. Hori ikaragarria da, espazio guztiak irabaziko ditugulako Euskaraldiko entitateen bidez.

K. A.: Eta horrek aktibatzen du jende bat, beharbada, orain arte uzkurtuta egon dena. Bada jende asko euskara ikasten denbora pasa duela, urteak pasa dituztela. Batzuek hala nahita, beste batzuek lantokian eskatu dietelako eta beste batzuek eskolan ikasi dutelako. Zenbat jende dugu euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko gai dena eta egunerokoa erabiltzen ez duena, lotsatzen delako, beharrik sentitzen ez duelako, inguruko arloan ez duelako aparteko giroa ikusten. Jende hori guztiori aktibatzen badugu, bai norbanako gisa eta bai entitateen barruan saltoa ikaragarri handia izan liteke. Hurrengo Euskaraldian sakontzeko aukera ikaragarria izan dezakegu.

Topagunearen azken lan-lerro nagusia Euskaraldia izan da, baina bere jardueraren zati garrantzitsu bat betidanik kultura eta aisialdia ere izan da. Azken urteotako proposamen asko gazteei zuzendutakoak izan dira. Nola ikusten dituzue belaunaldi gazteak?

E. L.: Nire ustez, arriskutsua da belaunaldi gazteak edozein orokortasunetan sartzea, ez baita gauza bera 13 urteko bat edo 20 urteko bat, edo herri bateko bat eta beste bateko bat. Gazteek, oro har, hezkuntza euskara jaso dute. Beraz, ia %100 euskara ulertzeko gai dela esan daiteke. Jende horri komunitate bat eskaini behar diogu. Gasteizko auzo baten euskaraz ikasi duen eta euskara ulertzeko eta hitz egiteko gai den ume batek ez badu gero non erabili, alferrik ari gara hainbeste baliabide erabiltzen gero alferrik xahutzeko. Hori da, beraz, gure komunitatearen zereginetako bat. Bestalde, gazteek hitz egiten dugu, baina momentu honetan populazioak gehiago jotzen du goitik behetik baino. Euskal Herrian, oro har, jendea nagusia da, eta gizartean eragin handia duen jende heldu asko dugu. Horiei ere aukerak eskaini behar zaizkie gure komunitatean aktibatzeke eta aktibista izan daitezen euskararen munduan.

K. A.: Gazteei buruz hitz egiten denean...anekdota bat kontatzea gustatuko litzaidake. Galtzaundiko azken zuzendaritza duela gutxi berriro zen eta gazte asko sartu da. Kezketako bat ere bada nola iritsi belaunaldi gazteetara. Beraz, hor badugu barne hausnarketa bat egin beharra gazte mugimendu horri lekua egiteko, euren ahotsak



"EZ NUEN PENTSATZEN ELKARLANA HORREN SAKONA IZANGO ZENIK EUSKARALDIAN"

entzuteko eta protagonismoa emateko. Baina askotan entzun izan dugu nola lortu gazteek euskaraz egin dezaten. Eta azkenengo zuzendaritzan gure kudeaketa plana errebisatzen ari ginela, partaide guztiok gure ekarpenak egin genituen, eta esaldi bat irakurri izanaz poztu nintzen: "Nola lortu helduek euskaraz gehiago egitea?". Gazte batek egin zuen ekarpena izan zen, eta esan nion: "Begira, ez dut inoiz entzun esaldi hori helduak hitzarekin". Horrek ikuspegi aldaketa bat datorrela esan nahi du, eta ikuspegi aldaketa horrek esan nahi du: "Zuek zarete euskaraz hitz egiten ez duzuenak edo gutxi egiten duzuenak, eta hasi adibide ona ematen". Nire ustez, gure belaunaldiak bi erantzukizun handi ditu, euskaldunak ala erdaldunak izan. Bata da ahalik eta euskara gehien egitea eta bigarrena, baldintzak sortzea askoz ere euskaldunagoa den belaunaldi berri horrek euskaraz egin ahal dezan.

Denbora gainera etorri zaigu. Elena, akaso, elkarriketa ixteko, gomendiorik edo aholkurik lehendakari berriarentzat?

E. L.: Disfrutatzeko, ondo pasatzeko, eta seguru lan ikaragarria egingo duela. Eta ez du beharrik izango, baina badaki non nagoen; kar, kar, kar. ■■■

Harira



ITZIAR REKALDE

IPUIN KONTALARIA

Aurrekoan Garaion Sorgingunean egon nintzen mintzaldi-elkarrizketa bat ematen ahozkoatasunaren inguruan, bertan antolatzen den ipuin egunaren bezperan. Ahozko narrazioaren eremuan arkeologia xumea egin genuen: informazioa, komunikazioa eta transmisioaren arteko loturak eta ezberdintasunak. Ipuinak ez ezik, ahozko narrazio saioetan sortzen den bizipenen unibertsoaz ere aritu ginen. Zertan ari gara istorio bat kontatzean? Induskatu, sakonera begiratu behar dugu batik bat honen inguruan gabiltzanok. Partitura, ipuina bera, albo batera utzi behar dugu guk geuk aurrean izango ditugun lagunekin nolako loturak sortu nahi ditugun jakin arte: informatu, komunikatu, partekatu, hunkitu, transmititu eta abar. Horren arabera, egingo duguna ahozko narrazioa izango da ala ez.

Zer da benetan kontatu nahi duguna ate itsusiarena kontatzerakoan, adibidez? Itsusiak ederrak bihurtzen direla gorriak igaro ostean? Ezberdintasunak sortzen duen gutxiespena? Edo ama baten gatazka seme-alabak bestelakoak direnean: babestu, berdintasunera moldatzeko hezi edo alde egiten utzi? Berdintasunaren paradigmak ez dira aldatzen printzesak printzearen ordeztu dragoia suntsitzearekin bakarrik. Aldiz, "gizontasunaren" arketipo kaltegarriak erantsiko dizkiogu "emakumetasunaren" arketipoari. Eraitza: kalte bikoitza biontzat.

Bide batez, nor demontre da Maridomingi? Nondik atera da? Zertara dator? Norbaitek sinesten du parekotasunaren mesedetan agertu behar dela iragana ez duen, zeregin jakin bat ez duen, kokapenik (tokiz nahiz soziala) ez duen eta gainera mendeetan emakume euskaldunek jantzi duten arroparik itsusienarekin moztortuta? Tebistako *reality*-etan agertzen diren azafata hutsal horietako bat nahi dugu, edo senarraren atzean doan emaztea? Kontuan hartuta familiakoez gain Maridomingi eta Olentzero izango direla lehen erreferente sozialak generoaren ikuspegitik, hori da gure haurrei eman nahi diegun eredu?

Jostatu nahi dugu, beste barik? Egunerokotasuna bazterrean utzi, izarrei begira egon? Edo, bizitzaren harira eramane, oinarritzora jo? Edo, bihotza hunkitu, hitzari eutsi, denbora bota, haize kontra joan? Orduan, aurrera! ■■■

**ZERTAN ARI GARA
ISTORIO BAT
KONTATZEAN?
INDUSKATU, SAKONERA
BEGIRATU BEHAR DA**

624. Feria Aguraingo Ozokoa 2019

Urriak 8 asteartea
Martes 8 octubre

11:00etan

- "Euskal Herriko Mendiko Zaldia" arrazako Euskadiko zaldi-aziendaren XII. Lehiaketa morfologikoa.
- Arabako XXXIII. Artzain-Gazta lehiaketa
- Behi eta ardi-aziendaren erakustaldia.
- Nekazal makineriaren erakustaldia.
- Euskal Herriko artisautza, gastronomia eta produktuen erakustaldia eta salmenta.

11 horas

- XII Concurso morfológico de ganado equino de Euskadi de la raza "Caballo del monte del País Vasco".
- XXXIII Edición del Concurso Provincial de Quesos de Pastor.
- Exposición de ganado vacuno y ovino.
- Exposición de maquinaria agrícola.
- Exposición y venta de artesanía, gastronomía y productos típicos del País Vasco.

Antolatzailea/Organiza

Laguntzailea/Colabora



AGURAIN
MILAN



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Vital
FUNDACIÓN - FUNDATZIOA

GRUPOWEC
Thinking forward

Pazientziaz baino errespetuaz ari gara, Uriarte anderea

GORKA CAMPO GALLASTEGI ETA MIREN ZUMARRAGA URIBESALGO

GANIVET IKASTETXE PUBLIKOKO IZARTEGIA
GURASO ELKARTEKO LEHENDAKARIA ETA
LEHENDAKARI-ORDEA

Gasteizko Angel Ganivet ikastetxe publikoko Izartegia guraso elkarteko kideok aurtengo ikasturtea ilusioz hasi genuen, bertan emandako hobekuntzak eta inbertsioa kontuan hartuta, baita hezkuntza proiektu berriak martxan jarri zirela jakitean ere.

Hala eta guztiz ere, Izartegi guraso elkartetik Ordeztagune plataforma abiatzeak sortutako egoera jasangaitzak salatu beharrean gaude. Plataforma honek irakasle ordezkoen izendapenak kudeatzen ditu, eta gaur gaurkoz (irailak 19) ez omen dugu konpontzeko biderik aurreikusten.

Haur Hezkuntzako hiru urteko gela batean, eta egokitzen garaiko lehenengo lau egunetan zehar, zegoen hutsunea ikasketa buruak ordezkatu behar izan du (haurren ongizatea eta zaintza lehenetsiz), ez baitzioten plaza hori inori esleitu hilaren 13ra arte. Horren garrantzitsua den une honetan, umeei errespetua ematea aldarrikatzen dugu; familiei ere, haien lanekin batera egokitzen auzartu egiten dutelako errespetua zor zaie. Eta nola ez, errespetua zor zaio ikastetxeko irakaslegoari, urte hasierako plangintza mimo eta profesionaltasun osoz egiten duenari, egokitzen garai



Gasteizko Angel Ganivet ikastetxe publikoa.

honetako den-dena ahal bezain hobekien gauzatzeko.

Horrez gain, hilaren 9an ikastetxeko irakasle bat gaixotu eta baja hartzeko beharrean egon zen. Gaur arte (hilaren 19a) hezkuntza delegazioak ez du pertsona hori ordezkatu. Hori dela eta, beste behin ere errespetua eskatzen dugu, langileen eskubideak bermatzea, haien lana eta umeen beharrei erantzuna emanez lehenengo momentutik.

Abuztuaren 28an bertako irakasle batek jardunaren heren bat murriztea eskatu arren, hezkuntzako delegazioak oraindik ez omen du inor bidali bere jarduna osatzeko, haien eskubideak zein umeen beharrei bizkarra emanez.

BADAKIGU BESTE HAINBAT IKASTETXE PUBLIKOTAN ANTZEKO EGOERAK SORTZEN ARI DIRELA

Beste irakasle batek hilaren 6tik darama beren jarduna murrizten ahalegintzen, baina delegaziotik ez dutenez plataforman alta ematen ezinezkoa bilakatu zaio tramite hori gauzatzeko, familia eta lana uztartzeko eskubidea urratuz.

Ikastetxeko zuzendari taldea Ordeztagune plataformako arduradunarekin kontaktuan jarri ostean, Ikastetxetako Erabiltzailearen Laguntza Zentroaren arduradunarekin kontaktuan jartzeko esan omen zaie, bestelako erantzunik eman gabe.

Jakin badakigu beste hainbat ikastetxe publikotan antzeko egoerak sortzen ari direla, baina Kristina Uriarte anderearen erantzuna haxe izan da: "Egoera hau ohikoa izaten da horrelako sistema telematikoen abiatzerakoan, hortaz pazientzia apur bat eskatzen dugu".

Bada Izartegi guraso elkartetik zera pentsatzen dugu, Uriarte anderea: "Ez gara pazientziaz ari, errespetuaz baizik". ■

BIDALI ZURE GUTUNA: erredakzioa@alea.eus

Gutunarekin batera, bidali zure izen-abizenak, herria, telefonoa eta notortasun agiriaren zenbakia.

ALEAK eskubidea du gutuna laburtzeko eta alea.eus-en argitaratzeko.

Eskola-jantokietan ere kalitatezko zerbitzuaren alde!

NEREA GALLASTEGI CAMARA

GASTEIZKO ADURTZA IKASTOLAKO AMA

Eskola-jantokia funtsezko zerbitzua da familia askorentzat, bai ume askok egunean otordu orekatu eta osasungarri bat behintzat izatea bermatzen duelako, familia bekadunen kasuan, bai lana eta umeen zaintza uztartzeko bide bakarra delako, lan egiten duten guraso askorentzat.

Eusko Jaurlaritzako Administrazio eta Zerbitzuen Saileko sailburuordearen 2019ko zirkularraren arabera, Lehen Hezkuntzan, 16-37 ikasleko begirale bat egongo da; Haur Hezkuntzan, aldiz, begirale bat 8-15 begiraleko. Kopuru horiek, baina, ez dira inondik inora nahikoak gure haurrak ondo zainduta egotea bermatzeko, eta hori jakin badakigu eskola-jantokietan umeak ditugun gurasoek, bai haietan lan egiten dugun begiraleek ere.



Jaurlaritzaren arabera, Lehen Hezkuntzan, 16-37 ikasleko begirale bat egongo da.

EZINBESTEKOA DA DIRU
PUBLIKO GEHIAGO
BIDERATZEA ETA BEGIRALE
KOPURUA HANDITZEA

Hezkuntzako beste hainbat alorretan gertatzen ari den bezala, egoera geroz eta okerragoa da eskola-jantokietan ere (ikasleen arteko istiluak, begiraleen lan baldintza prekarioak...). Eta horren kausa zuzena Administrazioaren utzikeria

eta kudeaketa kaxkarra da. Horregatik, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak eta Administrazio eta Zerbitzuen Saileko sailburuordeak diru publiko gehiago bideratzea horrenbeste familiarentzat funtsezkoa den eskola-jantoki zerbitzura eta handitzea ikasleko begirale kopurua.

Gure dirua ere badelako eta gure seme-alabek merezi dutelako, eskola-jantokietan ere kalitatezko zerbitzuaren alde! ■■■

Gasteizen

euskaraz kontsumitzeak saria dakar!

MOZTU ETA LORTU ZURE LEHEN BOLETOA

Erabili ALEA2019 kodea eta bi boleto gehiago besterik ez dituzu behar. Iragarkia, boletoak bezala, entregatu beharko da saria jaso ahal izateko.

SARIAK

1. 100 €-KO BONO BAT.
2. 50 €-KO BI BONO.
3. HIRU HARPIDETZA ALEA ALDIZKARIAN.
4. LAU BAZKARI/AFARI BI LAGUNENTZAT.

Boletoak urriaren 1etik 31ra arte banatuko dira Bai Euskarari ziurtagiria duten establezimenduetan.

bai euskarari.eus
f t i n s o
Lan eta bizi euskaraz

Laguntzailea

Azeriaren
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udalak

SAREAN

@ANAMENABAR

#KlimarenAstea

Azken egunetan, mundu osoan milioika lagun atara dira kalera klima larrialdiaren kontrako neurriak exijitzeko, Nazio Batuen Erakundeak New Yorken deitutako klimaren gailurrarekin batera. Euskal Herrian ere izango dira hainbat mobilizazio; Gasteizen, ostiralean deitu dute elkarretaratzea, 12:00etan, Plaza Berrian. Protagonista nagusiak gazteak izan dira, Greta Thunberg aktibista suediarra buru. ■



RAUL MENDEZ
@RMurigoitia

Geroa gure eskuetan dago. Has gaitezen lanean instituzioetatik, etxetik, kaletik, ikastetxetik, lanetik...



LOREA FLORES
@FloresLorea

Denbora gutti daukagu, baina ez da beranduegi. Irailaren 27an denak kalera klima larrialdiari erantzuteko neurriak exijitzeko.



ENEKO FERNANDEZ
@enekogara

Orain dela gutxi kapitalismoaren itxurakerietan "feminismoaren" txanda izan zen, eta orain "ekologismoaren" txanda da. Kapitalismoa denaz blaitzen da.



VLADIMIR TXIKIA
@VladimirTxikia

Aldaketarik baldin badago ziur langileok egin behar dugula. Ur gutxiagorekin dutxa hartu, haragirik ez jan edo esprai desodorantea ez erabiltzea. Auskalo.



ENEKO DEL AMO
@AnaisNi

Europar, ibilgailuen trafikoak CO2 isurketen %30 baino gehiago sortzen du eta 80.000M-ko osasun kostua du, eragin zuzena duelarik hiri eremuetako langile klase zaurgarrienarengan. Garrantzia du, nola eta zenbat mugitzen garen.



Parral
taberna

menu begetarianoa eta gosariak
asteazken zehar - asteburuetan razioak
astearteko aktibazio kulturalak

PARRALTABERNA@GMAIL.COM

SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4

TLF 945276833 GASTEIZ-ARABAKI

 IRUDITAN



Motor hotsak Mendialdean

Kirol hitzordu garrantzitsua izan zuten pasa den asteburuan Mendialdean: Maeztuko trial klasikoko bi eguneko motor lasterketa. Guztira, 110 pilotuk parte hartu zuten larunbatean zein igandean kategoria ezberdinetan jokaturako probetan. Adituen kategorian, Diego Urreta (goiko irudian) donostiarra nagusitu zen; trialeroetan, Gironako Francesc Planell; Pre-80 eta Pre-75 kategorietan, Michel Ranc frantsesa eta Bartzelonako Sergio Balague, hurrenez hurren; eta klasikoan artean, Jose Ramon Martinez Tamarit valentziarra gailendu zen. Denera, 1.000 bat lagun izan ziren proba ikusten.

Argazkia: Oskar Anzuola. ■■■



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Familiaren zaintzarik gabeko adingabe migratzaileak Nafarroako zentro batean. GUAIXE

Integratzeko laguntza faltan

Arabako administrazioak ez die aski baliabide eskaintzen adingabe migratzaileei gizartean integratzeko eta adinez nagusi direnean bere kabuz bizi ahal izateko. Oviedoko Unibertsitateak ikerketa egin du.

ESTITXU UGARTE LZ.DE ARKAUTE

Panorama beltza dute aurrean herrialdean dauden adingabe migratzaileek. Oviedoko Unibertsitateko Familiari eta Haurtzaroi buruzko Ikerketa taldeak adingabe hauek artatzeko Gizarte Ongizatearen Foru Institutua-ren zerbitzuei buruzko azterketa egin du, eta horretan atzeman du

"zailtasun izugarriak" izango dituztela gazteek gizartean integratzeko, adinez nagusi direnean. Izan ere, hamazortzi urte betetzeko gutxi falta zaie Araban dauden adingabe migratzaile gehienei, eta "ez dituzte autonomoak izateko oinarritzko gaitasunak eskuratu, hala nola komunitatearen zerbitzuak erabiltzeko, pisu

bat aurkitzeko, bankuan gestioak egiteko, lana bilatzeko edo ikas-teko laguntzak eskatzeko".

Hau horrela da, ikerketaren arabera, adingabe migratzaileek foru zerbitzuetan jasotzen duten arretak gabezia handiak dituelako. Batetik, emantzipazioa prestatzeko egoitzetan plaza eta baliabide gutxi daude; eta gainera, lehen arretaz arduratzen diren zerbitzuak ere gainezka daude eta lan zama handia dute profesionalak: "Adingabe migratzaileek bizimodu independentea izan dezaten prestatzeko berariazko plazarik falta dira".

Ikerketan jasotako datuen arabera, lehen arretako zerbitzuetan –Bidebarri 0 eta I– plaza guztiak (27+15) okupatuta daude, eta Bidebarri II eta III emantzipaziorako zentroan eta etxean ere plaza guztiak beteta daude (15+12).

Horrenbestez, egungo egoera ikusirik eta etorkizunean adingabe migratzaile gehiago sartuko direla aurreikusita, ezinbestekotzat jo du unibertsitate-ikerketak nerabeei zuzendutako sare osoa zabaltzea eta profesionalen eskuetan bitarteko gehiago jartzea. Era berean, adingabe migratzaileak pixkanaka eta banan-banan egoitza mistoetan integratzeko beharra ere nabarmendu dute txostenean.

85 adingabe urte hasieran

Oviedoko Unibertsitateak urtearen hasieran bildu dituen datuen arabera, Arabako harrera zentroetan familiaren zaintzarik gabeko 85 migratzaile adingabe daude, eta Bidebarri sareko zentroetan banaturik daude gehienak. Dena den, plaza faltagatik, sarritan, Sansohetara edo –emakumeen kasuan– Estibalizko zentrora ere bideratzen dituzte, nahiz eta hauek soilik portaera arazoak dituzten adingabeak artatzeko zerbitzuak diren.

Behar baino denbora gehiago igarotzen dute adingabe migratzaileek urgentziazko zerbitzuetan. Horietan oinarrizko beharrak asetzen dituzte, hizkuntza ikasten hasten dira eta erroldatzeko eta osasun txartela lortzeko tramiteak egiten dituzte, baina eskolatzeko edo lanbide heziketan hasteko aukerarik ez dute. Printzipioz, ez lirateke sei hilabete baino gehiago egon behar lehen arretako zentroan, baina errealitatea beste bat da.

Arabian, gainera, beste arazo bat dago, Fiskaltzaren esku dagoen adingabe migratzaileen adina zehazteko prozesua gehiegi atzeratzen delako: "Beste herrialdeetan, batez beste, 48 ordutan egiten dute froga, baina hemen hilabeteak luzatu daiteke". Horrek ere

adingabe migratzaileen integrazioa oztopatzen du, eta lehen arretako zerbitzuak gainezka egotea eragiten du; izan ere, froga egiten duten bitartean zentro horietan egon behar dira gazteak.


EH Bilduk plan bat galdegin du

Hiru hilabete epean adingabe migratzaileen arreta hobetzeko interbentzio plan bat lantzea proposatu du EH Bilduk, Oviedoko Unibertsitateak egindako azterlanaren harira. "Planak plaza gehiago aurreikusi behar ditu, baita baliabide ekonomiko eta giza baliabide gehiago eskaintzea ere, esku-hartze integrala egiteko: formazioa, hezkuntza, arreta psikologikoa eta sanitarioa".

Eztabaida atzerapenarekin hasia kritikatu du, gainera, koalizioak. Izan ere, 2016ko EH Bilduren eta EAJren arteko akordioan jasota zegoen ikerketa egitea: "Baina foru gobernuak 2018. urtera arte ez zuen azterketa eskatu, eta emaitzak aurtengo apirilean jaso baldin bazituen ere, hauteskundeak igaro arte ez dituzte aurkeztu".

Arreta berezia emakumeei

Herrialdera iristen diren adingabe migratzaile gehienak (%97) gizonak dira, eta 2019 urtean hiru emakume soilik artatu zituen Diputazioak. Unibertsitateko txostenak arreta berezia eskatzen du neskentzat: "Mutilak baino egoera ahulagoan dauden neska adingabeen etorrera atzemateko, arreta berezia jarri behar da". Azaldu dutenez, neska gehienak Marokotik sartzen dira, heldu batekin batera, eta horrenbestez, ez dute babes zerbitzuetara jotzen. Beste batzuk, Nigeria bezalako beste herrialdeetako neska prostituzio sareetatik askatu dituzte.





'Solitudes' lanaren arrakastaren ondoren, 'Quitamiedos' aurkeztuko du Kulunkak 44. Nazioarteko Antzerki Jaialdian. KULUNKA

Kulunkarekin, lehen hitzordua

Peter Brook, Royal Shakespeare Company, Juan Mayorga edota Tanttakaren lanak aurkeztuko ditu Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiak. Urriaren 3tik abendura arte, 33 ikuskizun eskainiko ditu.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Iñaki Rikarte gasteiztarak idatzi eta zuzenduko duen *Quitamiedos* obraren estreinaldiarekin abiatuko da Gasteizko 44. Antzerki Jaialdiak, urriaren 3an. Jesus Barranco eta Luis Moreno jarriko ditu taulan, "anekdota soiletik abiatuta", jolasa eta metaforarekin, bizitza edota maitasuna jorratuko dituen saio poetikoan.

Dantzahartuko du lekua urriaren 5ean, Kanadatik datorren Marie Chouinard artistak zuzendutako konpainiaren lanarekin; *Le jardin des délices* lana aurkeztuko du, Boscoren triptiko ospetsua oinarri. Erdi Aroko olio-pinturaren bertsio dantzatuak bertako pertsonaiak mugiaraziko ditu, bideo-proiektzioetan eta kantu gregorianoei elektronika

erantsita. Kanadatik helduko da, baita ere, Ballet Jazz Montreal, dantza garaikideko ikuskizun batekin, azaroaren 2an.

Kubako iraultzaren bitartez bidaia egiten duten lau gazte aurkeztuko ditu *Granma* lanak, Alemaniako Rimini Protokoll taldearen eskutik. Ari Benjamin Meyers konpositoreak eta lau tronboik lagunduta, musika-bidaia iraultzailea egingo dute urriaren 9an, Principalen.

Juan Mayorga Espainiako antzerkigile entzutetsuaren azkeneko lana ikusteko aukera ere izango da urriaren 10ean. Magia eta ilusionismoa tartekatuko ditu, Maria Galiana, Jose Luis Garcia Perez eta Ivana Heredia aktoreekin, *El mago* lanean.

Royal Shakespeare Company munduko konpainia errespetatu eta ezagunetakoa ere izango da Gasteizko Antzerki Jaialdian, urriaren 15ean, *Measure for measure*

obrarekin. Gregory Doran zuzendari artistikoak zuzendu du 1600. urtean Shakespearek idatzitako obra hau.

Gasteizko tauletan hutsik egiten ez duen Tanttaka taldea ere igaroko da aurten *Utzi mezua seinalearen ondoren* lanarekin. Maitasunari, bakardeari eta mugikorraren garaietako komunikazioari eskainitako begirada, zirrara eta umorez betea. Miren Arrieta, Mireia Gabilondo, Oihana Maritoren eta Leire Ruiz izango dira oholtzan, urriaren 22an (euskaraz) eta 23an (gaztelaniaz), Fernando Bernuesen zuzendaritzapean.

Stefano Massini autorearen *Lehman trilogy* urriaren 24an aurkeztuko dute Principalen, Barco Pirata konpainia eta Sergio Peris-Menchetak zuzenduta. Azken hamarkadetako krisi ekonomiko, etiko, sozial larriena ekarri zuen Lehman Brothers bankuaren erortzea taula gainean jarriko dute Aitor Beltran, Dario Paso, Litus, Pepe Lorente, Leo Rivera eta Victor Clavijo aktoreek.

La Manadari egindako epaiketaren transkribapenetik abiatuta, bestetik, biktimaren eta biktimarioaren buru barrura bidaiatzeko aukera ekarriko du El Pavon-Kamikaze konpainiak *Jauría* obrarekin, urriaren 31n. *Iphigenia en Vallecás* arrakastatsua ondoan, obra honen protagonista da berriz ere Maria Hervas aktorea, Fran Cantos, Pablo Bejar, Martiño Rivas, Ignacio Mateos eta J. Morearekin batera.

Peter Brook

Antzerki zuzendari apartenetako bat izango du aurten jaialdiak: Peter Brook. "Zergatik antzerkia? Zertarako balio du? Zer da?". Galdera horiek eta beste asko eramango ditu soinean, bidaia dramatiko eta alaian, Theatre des

Bouffes du Nord konpainiarekin, *Why?* obran. Hayley Carmichael, Kathryn Hunter eta Marcello Magnni izango dira taula gainean, azaroaren 7an eta 8an. Ingelesez aurkeztuko dute, gaztelaniazko goi-tituluekin.

Zaldi Urdina deitzen den droga berri batek koma eragin dio gazte bati, eta hari horri tiraka aurkeztuko dute izen bereko antzez-lana, Unai Iturriagak eta Igor Elortzak idatzitakoa, azaroaren 20an, Artedrama eta Dejabu Pannin Laborategia eta Axut-en eskutik. Ximun Fuchsek zuzenduta, Ainara Gurrutxaga, Ander Lipus Manex Fuchs, Urko Redondo, Miren Alcala, Olatz Beobide, Oier Zuñiga eta Edurne Azkarate izango dira aktore lanetan. Antzezpenaren ostean, solasaldia izango da aktore eta zuzendariarekin batera.

Moby Dick obrarekin arrakasta lortu ostean, *Viejo amigo Cicerón* lanarekin bueltatuko da Gasteizera Josep Maria Pou maisua, azaroaren 22an. Marco Tulio Ciceron politikari eta hizlari erromatar ospetsua oinarri duen lana aurkeztuko du oraingoa, Mario Gasek zuzenduta.

Principalekin batera, gizarte etxeetan aurkeztuko diren obren artean, besteak beste, Kourtney Kardashian antzezlan trilogiaren itxiera taularatuko du Sleepwalk Collectivek urriaren 18an. Gainera, Teatro Paraiso, Gorakada, Zurrunka edota El Mono Habitadoren lanak ikusi ahal izango dira, beste hainbat lanean artean. Obra eta eskaintza osagarri guztiak – hitzaldiak, saioak, tailerrak – ikus daitezke Gasteizko Udalak Nazioarteko Antzerki Jaialdirako prestatutako webgunean.

impresion
arte
Serigrafia Publizitatea

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es

ESANAK



LEYRE GOIKOETXEA

KULTUR ARABA BULEGOKO ARDURADUNA
Iturria: Gasteiz Kultura

"Gure helburuetako bat da Araba osora iristea, Kultur Araba Bulegoa deszentralizatzeke"



ANDRES ILLANA

BENETAKO GREEN PLATAFORMA
Iturria: Berria

"Garraibideek gure hirian duten gehiegizko garrantzia orekatu nahi dugu"



ONINTZE SALAZAR

EUSKALMETEKO METEOROLOGOA
Iturria: Radio Vitoria

"Klima aldaketaren ondorioetako bat da muturreko gertakarien maiztasuna handitzea"

ZENBAKITAN

Jaiotzak

Araban izandako jaiotzak

%6,5 jaitsi dira 2019ko lehen hiruhilekoan, jazio datuekin alderatuz. Orotara, tarte horretan 635 ume jaio dira, Eustatek emandako datuen arabera. Araba ez da jaiotza-tasan jaitsiera izan duen lurralde bakarra, baina bai nabarmenena izan duena: Bizkaian %4,5 jaitsi da, eta %2,9 Gipuzkoan. Hamar jaiotzatik lautan amak ez du Espainiako nazionalitatea (%39,4). Amaren bizitokiari dagokionez, jaiotzen %78an ama gasteiztarra izan da, eta %22an beste kuadrilla batekoa. Egoera zibilaren ere ondorioztatu da beheranzko joera: amen %41 ez zeuden ezkontuta.

635

143

Zuhaitzak

Gasteizko zuhaitzak lehia politikoaren eremura pasa dira azken egunotan. Alderdi Popularrak salatu du bus elektrikoa ezartzeko lanetan 143 zuhaitz bota dituztela Mendizorrotzean eta Esmaltacionesen. Udalak, berriz, hirian landatu diren zuhaitzen datuekin erantzun du. 2016tik, 5.444 zuhaitz landatu dituztela dio, eta 3.021 moztu. Kalkulagailua aterata Udalak argudiatu du Gasteizen 2.432 zuhaitz gehiago daudela.

968

Kiloak

Txakurrentzako atoi batean giza kontsumora bideratutako hegaluzea eramaten zuen gizonetako baten atxiloketaren berri eman du Gasteizko Udaltzaingoak. Polizia ikerketaren arabera, bilgarri eta izotzik gabe garraiatzen zuen arraina Bilbotik, Gasteizko arrandegi batean saltzeko. Orotara, ekainetik abuztura 968 kilo arrain eraman zituen modu horretan. Epaitegiaren esku utzi dute auzia, osasun publikoaren kontrako delitua ote den argitzeko.

Gardelegiko lindanoa iragazteko prozesua abiatu du Gasteizek

Udal zabortegian geratzen den lindanoa Zadorra ibaira iragatea ekiditeko instalazio berria jarri dute Gardelegin. Instalazioak ikatz aktiboa eta hareazko iragazkiak baliatzen ditu, eta 110 metro koa-dro inguru hartzen ditu. Lehen urterako 190.792 euroko kostua aurreikusi dute. Iaz Udalak 30.000 euroko isuna ordaindu behar izan zuen, lindanoa zela eta.



Gardelegiko lindanoaren arazoari behin betiko irtenbidea eman nahi diote. ALEA



Mañuetan ospatu dute jaia. AFA

Aste bat aurreratuta ere, bide onetik doa mahastiaren heltzea

Ardoaren Etxeak egiten dituen laginketek mahatsaren heltzea "modu onean" doala baieztatu dute, azken euriek heltze hori moteldu duten arren. Aurreko urtearekin alderatuta 8 egun aurreratuta doa, baina iazkoa atzeratuta joan zen. Joan den igandean eman zioten hasiera ofiziala aurtengo kanpainari, Mañuetan ospatutako mahats-bilketaren festan.

Azazetako zeharbidea egokitze lanak esleitu ditu Aldundiak

A-132 errepideko Azazetako zeharbidearen urbanizazioa lizitatu du behingoz Arabako Aldundiak. Proiektuan aurreikusten dute espaloiak egitea, bi autobus geltoki egokitzea eta herrirako sarbidea hobetzea garbitegi parean. Obrak 272.000 euroko aurrekontua du, eta sei hilabetea gauzatu behar da. Ziurrenik, urtea bukatu baino lehen hasiko dira lanak.

RPK Araski taldeak Emakumeen Euskal Kopa irabazi du berriro

Hirugarren urtez jarraian RPK Araski taldeak Euskal Kopa irabazi dio Lointek Gernikari, igandean Durangon jokaturiko finalean. Neurketa gogorra izan da eta markagailua oso-oso estua, baina azkenik 50-47 nagusitu dira arabarrak. Jokalaririk onena Laura Quevedo izendatu dute, eta Molinuevok eta Asurmendik egindako azken sas-kiak erabakigarriak izan dira.



Bizkaiko taldearen aurrean nagusitu dira arabarrak, kopa eskuratuta. ARASKI

Euskaraz erosteagatik sariak

'Euskaraz kontsumitzeak saria dakar!' kanpaina martxan jarri du Bai Euskarari elkarteak; urrian zehar ziurtagiria duten Gasteizko dendetan kontsumitzen duten bezeroek zozketa batean parte hartuko dute.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Bai Euskarari ziurtagiria duten Gasteizko saltokietan, urriaren 1etik azaroaren 1era, kontsumitzen duten lagunek hainbat sari eskuratzeko aukera izango dute; tartean, 100 euroko bonu bat, 50 euroko bi bonu, lau afari, eta ALEAko hiru harpidetza lortu daitezke.

Euskaraz kontsumitzeak saria dakar! kanpaina Gasteizko Udalak sustatzen duen 11ber2 festibalaren eta Euskararen Astearen testuinguruan txertatu dute. Ekimen berriaren bitartez, hiriburuan euskarazko kontsumoa handitu nahi dute, eta Bai Euskarari komunitatera denda gehiago erakartzea lortu nahi du elkarteak.

Izan ere, 2017 urtearen amaieran #LehenHitzaEUS kanpaina jarri zuen abian Bai Euskarari elkarteak hiriburuan, euskarazko kontsumoa handitzeko eta ziurtagiria duten saltokien komunitatera ahalik eta negozio gehien erakartzeko helburuarekin. Ordutik, 40 establezimendu baino gehiago batu dira Bai Euskarariren komunitatera, eta hura sendotzeko asmoarekin ekintza berriak ari dira lantzen.

AZAROAREN 4AN EGINGO DUTE ZOZKETA, ETA JAKINARAZIKO DITUZTE SARIEN IRABAZLEAK

Urriko zozketaren mekanika oso erraza da: enpresan edo saltokian kode bat duten txartelak utziko dituzte Bai Euskarari elkarteak lagunek, eta dendariak euskaraz kontsumitzen duten bezeroei edo lehen hitza euskaraz egin eta kontsumitzen dutenei txartel bat eman beharko diote. Bezeroek, berriz, Bai Euskarari ziurtagiria duten Gasteizko hiru dendetan kontsumitu beharko dute, eta lortzen dituzten hiru kodeak Bai Euskarari elkartearen webgunean horretarako prestatu duten atalean sartu beharko dituzte.

Azaroaren 4an egingo dute parte hartu duten bezeroen arteko zozketa, eta jakinaraziko dute sarien irabazleak. ■



Bai Euskarari komunitatera denda gehiago erakarri nahi ditu elkarteak. BAI EUSKARARI

Euskararen Agenda, Telegramen

Araban euskaraz izango diren ekitaldiak bilduko dituen difusio-taldea dagoeneko eskuragai dago mezularitza-aplikazioan. Telegram kontua izanez gero, taldera batzeko aukera izango dute erabiltzaileek.

ESTI LANAO

Euskararen Agendak hazten jarraitzen du, eta oraingoan Telegram mezularitza-aplikazioan murgildu da. Eskaintzen duen zerbitzua indartze aldera, difusio talde berria izango du aste honetatik aurrera.

ALEAK harpidedunei albisteak eta ekintzak zabaltzeko erabiltzen duen telefonoaren bidez (645 66 86 02), Telegram aplikazioan izena eman eta difusioa egiteko kanala sortu du. Kanala publikoa izango da, eta edonork batu zein zabaltzeko aukera izango du. Taldea aurkitzeko, nahikoa izango da aplikazioaren bilatzailean lotura (<https://t.me/euskararenagenda>) edo taldearen izena (Euskararen Agenda) idaztearekin. Behin taldea aurkituta, ekintzak jarraitzeko asmoa duen edonork "Elkartu" botoia sakatu beharko du, eta hortik aurrera ikusgai izango ditu jakinarazpen eta mezu guztiak, baita aurretik argitaratuta daudenak ere.

Difusio-kanalaren eginkizuna whatsapp aplikazioan ALEAK harpidedunentzat dituen difusio-taldean antzekoa izango da, hots, Araba osoko euskarazko ekintzak jakinarazi eta zabaltzea. Telegramaren kasuan, ordea, ez da beharrezkoa izango harpideduna izatea, eta horrek



Difusio-taldean bat egiteko aukera izango da, harpideduna izan beharrik gabe. ALEA

FACEBOOK, TWITTER ETA INSTAGRAM SARE SOZIALETAN IKUSGAI DAUDE EUSKARAZKO HAINBAT EKINTZA

Euskararen Agenda publiko zabalago batera heltzeko aukera emango du.

Aste honetatik aurrera, beraz, ekimenaren sarea handituko da. Dagoeneko bestelako plataforma digitaletan ere presente dago: Facebook (Euskararen Agenda), Twitter

(@euskaragenda) eta Instagram (@euskararenagenda) sare sozialetan, hain zuzen ere.

Euskararen Agenda Araba osoko euskarazko ekintza guztiak argitaratzeko sortu zen Arabako Diputazioarekin eta Gasteizko Udalarekin elkarlanean.

Euskararen Agendan agertu ez den zerbait jakinarazi nahi izanez gero, zuzenean harremanetan jartzeko bideak ere badaude Telegram-ez gain: telefonoz (945-71 60 05), postaz (agenda@alea.eus) edo ALEAkiideak mugikorraren bidez (645 668 602). ■

Nostalgia ariketa

MUSIKA



IGOR MUÑOZ

MUSIKAZALEA

Bizi izan zutenek ez dute sekula ahaztuko 1980. hamarkada hasierako giro gasteiztarra. Trantsizioaren urte zalantzarri haietan nahaste politikoa zen nagusi. Askatasun hasiberriko aldi hartan gazteak kaleaz jabetzeko egarri ziren, eta, egungo gizarte-etxe eta kiroldegien faltan, Alde Zaharreko tabernak bilakatu ziren babesleku. Kutxi kaleko giroa hiriko abertzaleena izanik, bertako tabernetan folk musika entzuten zen, batez ere Ez Dok Amairu mugimenduko abeslariak (Laboa, Iriondo, Benito...).

Ordurako, Zapa kalean rock musika entzuten hasia zen. Bilbon eta Donostian ez bezala, Gasteizen giro libertarioagoa zegoen, eta nolabait folkak une oro goraipatzen zuen Euskal Herri idilikoaz aspertuta, La Posta, El Abuelo edota El Calígula bezalako lokaletan biltzen ziren lagunek AEBetatik eta Britainia Handitik heldutako hots berri haiek hobesten zituzten. Zapako giro aske bezain gris hartan, akaso The Policen musikak inspiratuta, sortu zuten Josu Zabalak eta Xabier Montoiak (Gamma) Hertzainak taldearen ideia. Gamma Ingalaterran egon berria zen eta liluratuta itzuli zen han ezagututakoarekin, punk mugimenduarekin, alegia. Solfeoaz ezer gutxi zekien pertsona batek akorde gutxi



EITB

batzuk ikasita nahikoa zuen botere politikoaren bidegabekeriak salatzeko. Euskara ikastea falta zuen bakarrik, Sex Pistols edo The Clash taldeek Ingalaterran egiten zutena Euskal Herrira inportatzeko. Esan eta egin, Gamma euskaldundu eta berehala hasi zen Hertzainak Zabalaren Gamarrako lokalean entseatzen, denbora gutxian Iñaki Garitaonaindia (Gari) legazpiarrak ordezkatu zuen arte. Bandatik hainbat lagun

**ZAPA KALEKO GIRO
ASKE BEZAIN GRIS
HARTAN SORTU ZUTEN
ZABALAK ETA GARIK
TALDEAREN IDEIA**

pasa ziren, baina behin Tito Aldama saxo-jotzailea kanpo geratuta, taldekide ofizialak Zabala, Gari, Txanpi perkusionista eta Kike Saenz de Villaverde gitarra-jotzaile gasteiztarra zirela esan daiteke, tarteka ibili zen Bingen Mendizabal ahaztu barik.

35 urte igaro dira jada Hertzainaken debut diskoak 84an argia ikusi zuenetik. Urteurrena aitzakia hartuta, eta banda osoa batzeko burutazioa behin zapuztuta, Garik eta Zabalak biak elkarrekin eta Garik bakarkako proiektuan erabiltzen dituen musikariez lagundurik, Euskal Herriko hiriburuetatik bira egitea zuten helburu. Arazoak arazo, Bilboko emanaldiak soilik mantendu ahal izan dituzte. Hortaz, La Pollarekin gertatu bezala

(aguraindarrak ere berragerpen biran murgildurik dabilta), Euskal Herrian eskainiko dituzten emanaldiak Bizkaian soilik izango dira, Araba euren agendetatik kanpo geratu baita. Gasteiztarra naizen aldetik, erabaki guztiz ulergaitza, bi talde arabar klasikoan ibilbidea garai hartan euren hirian bizi zen giroaz zeharo baldintzatuta egon zela argi baitago.

Irailaren 17an Bilboko Kafe Antzokian izan zen eskainitako lehendabiziko kontzertua, eta beste biak aste honetan, hilaren 25 eta 26an. Non eta Euskalduna Jauregian, hain zuzen ere, 1985ean greba- itxialdian zeuden Euskalduna ontziolako langileei eskainitako *Eutsi gogor* kantaren leku berean. Iraganeko su eta kea, egungo erosotasun eta dotorezia. Bistakoa da, eta

aukera duten bakoitzean hala adierazten dute Zabalak eta Garik, garaia zeharo aldatu dira, eta haiek eta jendartearen ez dira momentu hartako bera; beraz, ez luke zentzurik Hertzainakek eskaintzen zituen kontzertuak imitatzea, eta euren asmoa abestiei zein taldeari omenaldi bat egitea izan da.

La Banda Municipal de Ska, gainontzeko lagun gasteiztarrek eta orduko neurrigabekeria XXI. mendera ekartzea tokiz kanpo legoke, baina, Garik sare

**35 URTE IGARO DIRA
JADA HERTZAINAK
TALDEAREN DEBUT
DISKOAK ARGIA
IKUSI ZUENETIK**

sozialetan iragarri bezala, aukera egongo da egungo euskal kulturako hainbat lagun Euskaldunako agertokian ikusteko. Besteak beste, han izango dira Hertzainakekin tarteka aritutako Ruper Ordorika eta Joseba Agirre txistularia, Unai Iturriaga eta Igor Elorza (7 eskale), Gorka Urbizu (Berri Txarrak) edota adopziozko gasteiztarra den Miren Narbaiza (MICE)...

Joan den astean Kafe Antzokian ikusitakoaren arabera, nostalgia ariketa ederra bizi izango zuten berehala agortutako sarreraren jabeek. Bitartean, arabarrok garai batean Hertzainak bandarekin bizi izandako sinbiosi harreman estu hari noizbait omenaldia egitearekin amets egiten jarraitu beharko dugu. ■

KOLOREZTATU FESTA EUSKARAZ!

SAN MIGEL JAIK MURGIAN,
IRAILAREN 27TIK 29RA.
ONDO PASA!



ZUIAKO UDALA

Pilota airean

EGILEA: BARRUTIA IKASTOLA 6.MAILA


Esperimentu honetan, oso material gutxi erabilita, pilota bat airean nola jarri ikasiko dugu. Egin froga.

Materialak

- Lastotxoa..
- Kartulina.
- Aluminiozko papera
- Zinta iragazgaitza
- Guraizeak

Nola egin

1. Hasteko, kartulinan 10 bat zentimetroko diametroa duen zirkulu bat egingo dugu.
2. Ondoren, mozketa bat egingo dugu mutur batetik erdiraino.
3. Lastotxoaren muturra zirkuluaren erdian jarriko dugu, eta bere inguruan kartulina kono baten moduan jarriko dugu. Hau zinta iragazgaitzarekin itsatsi behar da .
4. Bukatzeko aluminiozko paperarekin pilota bat egin eta barruan jarri.
5. Orain putz egin eta pilota airean igoko da.



ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak

Irabazleak:

Anari eta Thalia Zedek kontzertuan: Idoia Alvarez eta Iñaki Agirresarobe Arzallus.



Gorbeia zinemarako Sarrera bikoitza

Gorbeia zinemetan, edozein pelikula ikusteko sarrera bikoitz bat zozkatzen du ALEAk. Parte hartu urriaren 2a, asteazkena, baino lehen; urriaren 4ko ALEAn publikatuko dugu irabazlearen izena.



GoPro motako kamera [ZOZKETA IREKIA]


GoPro motako kamera urperagarria. Kirol eta aisialdi jardueretarako diseinatuta (mendia, bizikleta, korrika...) eta wifi konexioduna. Urriaren 1etik 16ra bitartean harpidetzen edo harpidetza berri bat lortzen duzuenen artean zozkatuko dugu. Irabazlearen izena urriaren 18ko aldizkarian argitaratuko dugu.

OHARRA: Oraindik bazkide-zenbakirik ez baduzu, 000 idatzi.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



AGENDA

Irailaren 27tik urriaren 3ra

Euskararen agenda

MUSIKA

LAUDIO Jon Basaguren

Arrastiak Faktorian zikloaren barruan eskainiko du kontzertua.

Ostirala 27, 20:00etan, Faktorian.

MURGIA Harresian Zulo

Ondoren, Trikitio taldearekin erromeria.

Larunbata 28, 23:30ean, plazan.

AMURRIO Izaskun del Cerro

Piano taupadak lana aurkeztuko du.

Igandea 29, 19:30ean, Amurrio antzokian.

GASTEIZ Duluth

Igandeak Artiumen zikloaren barruan.

Igandea 29, 20:00etan, Artiumen.

GASTEIZ Anari eta Thalia Zedek

Elkarrekin eskainiko dute kontzertua.

Osteguna 3, 20:00etan, Jimmy Jazzen.

DANTZA

LAUDIO Akelarre dantza taldea

Akelarre taldearen ikuskizuna eta dantza plaza saioa.

Larunbata 28, 18:30ean, herriko plazan.

HAURRAK

LAUDIO Umeentzako tailerrak

Tailerrak, puzgarriak eta jolasak. Kirikiñok antolatuta.

Ostirala 27, 17:30ean, Herriko plazan.



DUPLA

GASTEIZ Dupla

Sei urte bete dira Errekaleor Bizirik proiektua martxan jarri zutenetik, eta ospatzeko hamaika ekitaldi prestatu dituzte. Ostiralean emango diote hasiera jaiari, eta, besteak beste, antzerkia, musika eta herri bazkaria izango dira igandera bitartean.

Larunbata 28, 22:30ean, Errekaleorren.

MURGIA Umeentzako puzgarriak

Gaztelu puzgarriak.

Larunbata 28, 16:00etatik 19:00etara, plazan.

IKUS ENTZUN

GASTEIZ 'Mutafukaz'

Shojiro Nishimik eta Guillaume Run Renardk zuzendutako animazio pelikula. Jatorrizko bertsioan, euskaraz azpitu-tulata. Aukeraketa eta aurkezpena: Paul Urkijo zine zuzendariarekin.

Asteartea 1, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

HITZALDIA

MAEZTU 'Euskara eta generoa'

Euskara eta generoa. Adierazpen ez sexistarako gakoak hitzaldia eskainiko du Amelia Barquin Kulturarteko Hezkuntzako irakasleak. Laia Eskolaren eskutik.

Ostirala 27, 18:30ean, udaletxean.

Jimmy jazz gasteiz **URRIA**

Ot. 3	ANARI & THALIA ZEDEK
Os. 4	ESKORZO
Lr. 5	BOB FLOYD 'A PINK FLOYD LIVE EXP.'
Ig. 6	THE CHRIS SLADE TIMELINE
Os. 11	GATIBU
Lr. 12	ARETHA FRANKLIN OMENALDIA


WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

19 / 20 egitarauaren aurkezpena

Goseak Janak errezitaldia

Idurre Eskisabel, Amagoia Gurrutxaga eta Irati Agirreazkuenaga



URRIAK 10, OSTEGUNA, 19:30
Ignacio Aldecoa kultura etxean





Urria 2019

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

01 as. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



Mutafukaz

Aukeraketa eta aurkezpena: Paul Urkijo

Filmazpit, zinema jatorrizko bertsoan euskarazko azpitutuekin

04 > 05 or. > Ir. Jardunaldia



Euskara oinarri, eleaniztasuna helburu

ELEBILAB (UPV/EHU)

UEU-ekin elkarlanean

08 as. | 18:30 Ikastaroa



Kode poesia

Bertol Arrieta

PuntuEUS Fundazioarekin elkarlanean

09 az. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



Pastoreak

Eukeni Arriortua eta Puy Arrieta

Begi Belarri, ikus-entzunezkoan zikloa

GEU Elkarteari elkarlanean

16 az. | 19:00 Ikastaroa



Judu-espaniera

Amelia Barquin

Hitz Adina Mintzo, hizkuntza gubaituak ezagutzeko zikloa

UEU-ekin elkarlanean

22 as. | 16:00 Ikastaroa



Euskaraz ahoskatzen ikasi eta irakatsi: araua eta komunikazioa

Lourdes Oñederra, Oñitz Jauregi eta Julia Marin

Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordearekin elkarlanean

24 og. | 19:30 Kontzertua



Iker Lauroba

"Udazkena" diskoaren aurkezpena

Eskilarapeko Soinuak, formatu bakiko kontzertuen zikloa

25 or. | 19:00-22:00 Ospakizuna



Eman bostekoa Oihanederri!

19:00-20:00. Urteurren emanaldia

20:00-22:00. Ospakizun soziala

29 as. | 19:00 Mahai-ingurua



Oraina sentitu

Socorro Cauchi Csamail eta Oscar Chan Dzul

Aurkezte eta gidari: Jon Sarasaia

Garabidearekin elkarlanean

Urriak 17 > Azaroak 03

Erakusketa



ERAKUSKETA

GASTEIZTARRAK

ARRAUN THE WORLD

Udako argazki-hizki lehiaketa • 2019

Gasteiztarrak Arraun the World 2019

Erakusketaren inaugurazioa: urriak 17, 19:00etan

Gauekoakarekin elkarlanean

Bidaia sarituen aurkezpenak

- Urriak 21 - as. 19:00
Zabalana gizarte etxean (Zabalana)
Zabalana Eusko Jaurlaritzaren elkarlanean
- Urriak 23 - az. 19:00
Koxka taberna (Salburua)
Salburua Kultur Etxearekin elkarlanean
- Urriak 27 - ig. 19:00
Orient Express taberna (Txagorritxu)
Txagorritxu Kultur Etxearekin elkarlanean
- Urriak 30 - az. 19:00
Dazz taberna (Alde Zaharra)
Dazz Kultur Etxearekin elkarlanean

oihaneder.eus

Isay Zazpiku Martinez, 2 - Vitoria-Gasteiz

LAGUNTZALEAK

ANTOLATZALEA

Diario

ALEA

berria

radio vitoria



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA



Agurimientu de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala